

Edurne Mendiburuk Arte Eder museoari utzi dizkio aitarengandik jasotako lanak

Aitarengandik herentzian jasotako obrak Arte Eder museoaren esku laga ditu Edurne Mendiburuk, Remigio Mendiburu zenaren alabetako batek. Zehazki, hamabost obra utzi dizkio: hamahiru eskultura eta bi collage. Tartean da Murru izeneko egurrezko eskultura handia. Obra hori bost urtez izango da Bilboko pinakotekan, eta gainerakoak hiru urtez. Hala adostu dute Edurne Mendiburuk eta museoko arduradunek.

Zehaztutako denbora pasatuta, ordea, hitzarmenaren nondik norakoak berrikusiko dituzte alde biek, eta dena ondo bidean, obrak museoan izateko epea luzatuko dute. Bide luze baten hasiera besterik ez izatea espero dut, adierazi zuen atzo, Bilbon, Edurne Mendiburuk. Javier Biar Arte Eder museoko zuzendaria ondoan zuela agertu zen prentsaurrera.

Mendibururen alabak esker oneko hitzak izan zituen Biarrek gidatzen duen museoarentzat. Erakutsitako arreta eskertzen diet, egin duten lan guztia eta agertu duten profesionalitatea.

Aita zuenaren ondarearen ezagutza sustatzeko ahaleginik ez dela egin kritikatu du Edurne Mendiburuk. Hutsune nabarmena dago denon partetik. Erraza da erakunde publikoak errudun jotzea. Jakina, badute erantzukizuna, baina nire aitaren obraren garrantzia aldarrikatzea denon ardura da. Euskal arte garaikidean, Remigio Mendiburu (Hondarribia, Gipuzkoa, 1931-Bartzelona, 1990) funtsezko artista dela dio Edurne Mendiburuk, eta jendea jabetu dadin obra ezagutarazi behar dela sinetsita dago. Horregatik erabaki du Arte Eder museoari lagatzea aitarengandik herentzian jasotako hamabost piezak.

Museoa arduratuko da obrak zaintzeaz, aztertzeaz eta erakustez. Neba-arrebek aitarengandik jasotako obrak kudeatzeko dituzten asmoez galdetuta, nork bere irizpideak dituela azaldu du Edurne Mendiburuk. Bakoitzak obra sorta bat jaso du herentzian. Nik nahiago dut lantegian gordeta barik, obrak museoan egotea, hala nahi duen orok ikusi, gozatu eta aztertu ditzan, adierazi du artistaren alabak.

Arte Eder museoari utzitako hamabost lanen artean Murru egurrezko eskultura handia da ezagunena. Remigio Mendibururen lanik baliotsuena dela dio Edurne Mendiburuk, Argi-hiru-zubi eskulturaren atzetik. 1978. urtean sortu zuen Mendiburuk, informalismoaren arau zorrotzeneri segika. Arte Eder museoaren sarreran paratu dute, Rafael Balerdi, Vicente Larrea eta Eduardo Txillidaren obren artean. Gainerakoak arte garaikidearen aretoetan jarriko dituzte, Jose Antonio Sistiaga, Jose Luis Zumeta eta Amable Ariasen lanen ondoan.

Biarrek Mendibururen obra goratu du, modernitatearen eredu dela esatearekin bat. Eduardo Txillida, Jorge Oteiza eta Nestor Basterretxea kokatu ditu belaunaldi batean; eta Rafael Balerdi, Jose Luis Zumeta, Amable Arias eta Vicente Larrea hurrengoan. Remigio Mendiburu bigarren belaunaldi hartako eskultoreetako bat izan zen. Talde zoragarria osatu zuten, baina beren obra ez da lehen belaunaldia osatu zuten artistena bezain ezaguna.

Informalismoaren ordezkari

Informalismoaren ordezkari, Gipuzkoako artistak bildu zituen Gaur taldearen sortzaileetako bat izan zen Mendiburu. Materiarekiko interesa agertu zuen, eta naturari erreparatu zion eskulturak sortzeko. Naturaren materiei (egurrari bereziki), formei eta poetikari. Hala, Mendibururen obrak natura bezala hazten dira espazioan, askatasun osoz. Materiari berez mintzatzen uzten baitzion artistak. Murru lanean, enborrak elkarren artean gurutzatzen dira, eta zurezko iltzeek katramilatzen dituzte. Talua eskultura, berriz, surrealismotik hartutako teknikarekin sortu zuela azaldu du Biarrek. Buztin zatiak botatzen zituzten leihotik lurrera. Zati batzuk gehiago lehertzen ziren, eta beste batzuk gutxiago. Buztinak hartutako formarekin, igeltsuzko moldea egin zuen Mendiburuk, eta brontzezko eskultura osatu azkenik.

Utzitako obrak

' Talua ' . 1960
Izenburu barik. 1970
Izenburu barik. 1973-74
' Murru ' . 1978
' Zilindroak ' saileko lana. 1980
' Hostoak ' saileko lana. 1981-82
' Mugarriz ' . 1983
' Atari ' saileko lana. 1984
' Ahariaren gaua ' . 1986
' Erbestearen gaua ' . 1986
Izenburu barik. 1986-87
Izenburu barik. 1987
' Hariak I ' . 1987
' Hariak II ' . 1987
Izenburu barik. 1988

Irune Berro.